

Ikustekoen Teknologiak: enpresen produktibitatea handitzeko eta hobetzeko erreminta berriak

Donostia - 2016ko Urriaren 4a - Gipuzkoako Bazkunderak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute "**Ikustekoen Teknologiak zure Enpresarentzat**" izenburupean. Jardunaldia gaur, asteartea, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan eta 200 pertsona baino gehiago izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamalagarren edizioan barneratzen da eta enpresak laugarren industria iraultzara egokitzeko egiten ari diren ekintzak, ikusteko teknologiak horien artean, ezagutzeko interesa duten profesionalei eta enpresariei zuzendua egon da.

Jardunaldian, **Iñigo Barandiaranek**, Vicomtech-Ik4ko Industria eta fabrikazio aurreratuaren saileko zuzendariak, **Juan José Galdosek**, Ibermatica Industriako Digital bihurtaren arduradunak, **David Morenok**, Virtualwareko Chief Revenue Officerak, **Pablo Ayalak**, Innovae Augmented Realityko OCEak, **Óscar Sevillanok**, Ekideko Zuzendari Orokorrak eta **June Solak** Innovalia Metrologyko I+D Ingeniariak parte hartu dute besteak beste. Jardunaldian "habilidades digitales" delakoak aipatu dira eta argi geratu da hauek, **Ikustekoen Teknologiak** barne, enpresaren eraldaketa digitala ahalbidetzen dutenak direla, 4.0 industriaruntz joateko bidea errazten dutenak direla, 4.0 industria etorkizunean enpresaren iraunkortasuna ziurtatzeko beharrezkoa den modelu bat dela kontutan izan da.

Ikustekoen Teknologiak mundu fisikoa birtualera lotzen dutenak dira, industria, industria hutsa izatetik industria adimentsua izatera bideratzen dutenak. Jardunaldian zehar hizlariak teknologia hauek, 4.0 industriarekin erlazionaturik, gaur egungo garapenetan eta etorkizunekoetan ze paper izango duten aztertu dute.

Ikuspen Artifizialean, Errealitate Birtualean eta Errealitate Areagotuetan oinarritutako industriak fabrikazio faseak simulatzea ahalbidetzen du, oraindik sortu ez diren prototipoak ikusteko ahalmena ematen du edo urruneko moduan makina bat gidatu ahal izateko aukera ematen du errealitate areagotuko betaurrekoen bitartez, smartphon, tablet edo eta beste gailu batzuen bitartez. Teknologia hauek guztiak enpresaren produktibitatea handitzeko eta hobetzeko aukera berriak irekitzen ari dira, negozio aukera berriak errazten ari dira ekonomia aurreratueto etorkizuneko fabrikazioa ziurtatzen ari diren bitartean.

Aurrerapen teknologikoei esker enpresek lortzen dituzten etekinak begibistakoak dira, produktibitatea gehitzen da, eraginkortasuna handitzen da, kalitatea denbora errealean kudeatzen da, kostuetan aurrezten da eta produkzio prozesuetan malgutasuna handitzen da.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga, Gauzen Interneta, Big Data...

Laguntzaileak

Antolatzaileak



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347